Dibulgazioko koadernoa



# LESBIANISMOA

Emakumeen homosexualitatea

Emakumeen arteko sexua

Emakumeen homoerotismoa

Emakumeen arteko maitasuna

**"A Chloe le gustaba Olivia…** No os sobresaltéis. No os ruboricéis. Admitamos en la intimidad de nuestra propia sociedad que estas cosas ocurren a veces. A veces a las mujeres les gustan las mujeres. A Chloe le gustaba Olivia, leí. Y entoces me di cuenta de qué inmenso cambio representaba aquello. Era quizá la primera vez que en un libro a Chloe le gustaba Olivia."

Virginia Wolf. Una habitación propia.


Dibulgazioko koaderna "Lesbianismoa" 1 zbkia.

Abenduak, 2000

Inskrizio zbkia: BI-322-01

Koordinatzaile: Sexu eta askatasunari buruzko ikerketa eta Dokumentazio Zentroa.





Laguntzaile:

Bizkaiko Foru Aldundia
Lehendakaritza Saila

Diputación Foral de Bizkaia
Departamento de Presidencia

# AURKEZPENA

Gizarteak lesbianismoari buruzko iritzi negatiboa duela eta mito zein estereotipoz kutsatuta dagoela uste dugu. Horregatik, argitalpen honen bidez, emakume lesbianen gaur egungo errealitateari hurbilpen ireki, positibo eta anitza eskaini nahi dizuegu.

Gaur egun, emakume lesbianen biografiak egiten ari dira. Biografiok era askotakoak dira, askotarikoak diren bezalaxe lesbianismo, emakumezkoen homosexualitate, emakumeen arteko maitasun, emakumeen arteko sexu, ... eta antzekoekin identifikatzen diren pertsonak.

Koaderno hau informazioa zabaltzeko asmoz egin dugu. Alde batetik, norbere bizipenak modu positiboan aintzat hartu eta aurreiritziak desegiteko estrategiak edo bideak markatu nahian egin dugu. Bestetik, baliabideak eskuratzeko erraztasunak eskaini nahi dizkiegu emakume lesbianei eta, baita, gai honetara hurbildu nahi duten guztiei ere.



batzuk, ordea, lesbianatzat dute euren burua, emakumerekin harremanik izan ez arren.

Lesbiana izateko modu asko dago: beste emakume batzuenganako erakarpena sentitzen duten emakume adina modu dagoela esan genezake. Bakoitzaren historia pertsonalak, bizi dugun gizarte-inguramenak eta, batez ere, norbere borondateak baldintzatuko du batek bere burua lesbianatzat hartzeko erabakia.

Badira lesbianismoari buruzko tabu eta estereotipo eginak. Gizonezkoen jokamoldeak dituena, ile laburra, makilatugabea, lehorra eta serioa, seme-alaba gabekoa, eta gizonezkoen etsaia: horra hor emakume lesbianen irudia. Irudi hori zabaldu da gure gizartean eta ez du, inolaz ere, lesbianen mundu askoz ere anitzagoa irudikatzen.

Emakumeek erakartzen dituzten emakumeak era guztietako maila eta egoera sozialetan aurkitzen ditugu: emakume aberats zein txiroak; eskuindarrak zein ezkertiarrak, ejekutiboak, etxeko langileak, politikan ari direnak, legebiltzarkideak, etxekoandreak, ezkonduak, seme-alabak dituztenak eta ez dituztenak, ikasleak, gazteak, helduagoak, kirolariak, ... Ezaugarri eta gorpuzkera guztiz desberdinetakoak dira: lodiak, argalak, guztiz itxura femeninoa zein maskulinoa dutenak, makilajeak atsegin dituztenak eta ez dituztenak, tristeak, alaiak, atseginak, gonadunak, prakadunak, erlijiosoak, ...

Emakume lesbiana batek ez du bestelako emakume batengandik bereziko duen kanpoko ezaugarri berezirik.

Zergatik ematen da lesbianismoa? Teoria asko dago horren inguruan: oinarri psikologiko, endokrinologiko, genetiko eta abar kontuan hartzen dituztenak. Teoria bat bera ere ez da zientifikoki egiaztatua. Baieztatu ahal duguna zera da:

- ANIZTASUNA dela gure sexualitatearen oinarrizko ezaugarrietariko bat
- Gutxitan aukeratzen dugula hetero-sexual izan edo homosexual izan
- Sexu-orientazioa ez dela aldagarria eta ez dela transmititzen



# LESBIANISMOAREKIKO AURREIRITZIEK SORTARAZ DITZAKETEN ARAZOAK



**Norberak dituen praktika sexualengatik erruduntasun sentimendua izatea:** sexualitatea modu negatiboan bizitzea, eta halabeharrezkoa den desioaren aurrean errudun sentitzea.

**Agerikotasunik ez izatea:** Behin, lehen ministro britainiar batek, XIX. mendearen amaieran, desbideratutako jokabide sexualak zigortzeko lege bat egiteko agindu zuen. Proiektua esku artean izan zuenean, emakumezkoen homosexualitateari buruzko aipamen guztiak ezabatu egin zituen, honako arrazoiak erabilita: berak ezin ziola erreginari horrelakorik erakutsi, emakumeek ez zutela horrelako gauzarik egiten eta.

# Historian zehar emakumeen mundu homoerotikoa markatu duten arauak izan dira ezkutukotasuna eta agerikotasunik eza.

Lesbianak gizartean gutxiago ageri izan direla eta gay baino lesbiana gutxiago dagoela ondorioztatu izan da. Ez da kopuru kontua (emakume lesbiana asko dago egon) Baina lehen bezala egun ere, lesbianismoa gizonezkoen homosexualitatea baino ezkutuago dago.



**Irisgarritasuna:** non aurki ditzaket emakume lesbianak? Zelan hasiko naiz ni beste emakume batekin ligatzen? Homosexualitatea laidoztatuta egonik, iristezin egiten da eta zail da erreferenteak eta guneak aurkitzea lesbianismoa normaltasunez gauzatzeko. "Anbientea" eta berak eskaintzen dituen zerbitzuak dira aukera sexual hori kanporatzeko irtenbideetariko bat.



**Identitate krisia edo porrota:** Gure gizartearen aurreiritzia da sexu-praktikak norbere izaera definitzen duela. Sexu-praktikak normaltasuna hausten duenean, emakume lesbianak, lehenengo eta behin, bere buruari egiten dion galdera da: nor naiz ni?, zertan ari naiz? ... eta bere izakera kolokan jartzen hasten da: identitate krisiak jotzen du. Lesbianek, gizartean baliogutxituak izanik, arazoak dituzte oreka pertsonala lortzeko eta nahasmen egoera bizi dute, erasotuak diren edo identitatea kolokan jarrita duten pertsonen antzera.

Lesbianismoa laidoztatzeak sortarazten dituen arazoak areagotu egin daitezke emakumeek gizarte batzuetan bizi duten egoeragatik. Gogoan izan behar dugu emakumeen sexualitatea ez dela aintzat hartua izan eta, gainera, emakumeek zaintza lanak egin dituztela. Kontu horiek guztiak oztopo izan daitezke emakumeak bere homosexualitatea aintzat hartzeko orduan.

## Zelan esan norbere ingurukoei?

Zelan sentitzen den, beste neska batekin zelako harremana duen edo izan nahiko lukeen, etorkizunerako dituen ametsak zeintzuk diren, eta abar.

"Armairutik irtetzeko", norbere bizimoduari buruzko isilltasuna hausteko gogoa izaten da. Zu ere horrelako kasuan bazaude jakin ezazu garrantzitsua dela honako hau:

- Sexualitate lesbianoarekin eroso sentitzea eta segurtasuna izatea
- Beste pertsona batzuen laguntza izatea. Lesbiana zarela esateko prozesuari ez diozu bakar bakarrik heldu behar.
- Lesbianismoaren gaineko ezagutza izatea. Horretarako bada bibliografia, bideoak, atentzio zentroak, eta abar.
- Hitz egiteko une egokia aukeratu behar da. Garrantzitsua da aldarte onean izatea: hobe animotsu eta humore puntu batekin ekitea.
- Argudio errazak baina konbentzigarriak izan behar ditugu
- Hitz egingo dugun pertsona horiei filmeak, liburuak eta materialak eskuratzea zein lagunak aurkeztea, gaia normaltasunez ikus dezaten.
- Aurreiritziak argudioen bidez gainditu behar ditugu
- ...

Norbere homosexualitateari buruz mintzatzeak baditu alde onak, esate baterako: norberarekiko lasaitasuna, norbera den moduan azaltzeko aukera, bizimodu bikoitza eraman beharrik ez izatea, besteek antzemango ote duten beldurra alde batera uztea eta lanekoen, gurasoen, auzokoen eta ezagunen txantaia arriskua saihestea.

Baina, jakina, alde negatiboak ere izan ditzake. Gerta liteke egoeraren kontrolik ez izatea, edo egoera latzak sortaraztea, eta ezin da inor horrelako egoera latzak bizitzera behartu.

### Garrantzitsua da era bateko zein besteko presioei muzin egitea: presio politikoari, pertsonalari, komunikabideenari zein dena delakoari.

Ez da hutsezinezko formularik; beraz, bakoitzak beretzat egokiena bilatu behar du, beretzak erosoena dena. Bakoitzak bere senak esaten dionari jarraitzea izan ohi da biderik egokiena

# ESATEKO PROZESUA



Jabetu behar dugu norbere izaera lesbianoa adierazteko prozesua luze joango dela; batzutan ia bizitza osoa iraungo du. Gure inguruko pertsona jakinen bati esan nahi diogulako edo esan behar diogula uste dugulako, edo norbaitek zuzenean nahiz zeharka galdetuko digulako, baina kontua da ez dela behin esan eta betiko gainetik kentzen dugun auzia. Hori bai, lehenengo aldiz baino gutxiago kostatuko zaigu, seguruenik, hurrengoetan esaten dugunean. Horregatik, "esateko prozesuaz" mintzatzen gara eta ez "esateaz".

Sarritan gertatu ohi da guraso, lagun, lankide eta abarri lesbiana zarela esan eta gero ez jakitea gai horren inguruan zelan berba egin, zelan jokatu eta abar, eta egoera horrek ezinegona sortzen du.



A L
DAR
T E

**GAY ETA LESBIENEN ATENTZIO ZENTROA**

## Sexu eta askatasunari buruzko Ikerketa eta Dokumentazio Zentroa

Prestakunta, informazio, laguntza eta orientazio baliabideak ez ezik, jendea ezagutu eta lagunak egiteko topaleku aproposak ere badira.

Aldarteren web orrian (www.aldarte.org) eskura daukazu zentroan ditugun liburu, bideo eta aldizkarien zerrenda. Horrez gain, Aldartek eskaintzen dituen zerbitzuak eta hurrengo hilabeteetarako prestatu ditugun ekimenen berri ere jaso dezakezu gure web orrian.

Dena den, gure lokalak zabalik dituzue goizez nahiz arratsaldez, eta bertara joatea duzue biderik zuzenena. Pertsona adituek egingo dizuete harrera eta zuen kontsultak bideratuko dituzte.

Aldartera hurbiltzerik ez baduzu, zure eskualdeko emakume-taldetara zein atentzio-zentroetara eta lesbianen taldetara jo dezakezu.

Erakundeetan ere eska dezakezu informazioa: Emakunden, Diputazioko zerbitzuetan zein udaletxeetako emakumeen zerbitzuetan.

**Aldarte eta Sexu-Askatasunerako ikerketa Zentroa,**

ondorengo helbidean aurkituko dituzue:

Barroeta aldamar, 7 - 2.
48001 Bilbo
Tfnoa. eta faxa: 94 423 72 96
e-maila: aldarte@aldarte.org • www.aldarte.org

Ordutegiak: goizez- astelehenetik ostiralera: 10etatik 13etara
arratsaldez- astelehenetik ostegunera: 5,30etatik 8,30etara